

Euskaraz aritzeko gazteen bila dabil Gasteizko Mintzalaguna

Gasteizko Mintzalagunak GAZTELAGUNA sarea indartu nahi du. Hori dela eta, euskaraz aritzeko gazte motibatuen eta ausarten bila dabil, Gasteizen bizi edo ikasten duten 18 eta 28 urte bitarteko gazteen bila, hain zuzen ere. Gasteizko gazteen artean lautik hiru euskaraz dakiela diote azken datu soziolinguistikoez, hala ere, horietatik gutxi batzuk soilik mintzatzen dira euskaraz. Hamaika arrazoi egon daitezke: lotsa, gaizki egingo duten beldurra, ohitura falta... eta guzti hauei aurre egiteko GAZTELAGUNA egitasmoa aukera ona izan daiteke gazte askorentzat.



GAZTELAGUNA mintzapraktikaren aldaera da, 18 eta 28 urte bitarteko gazteak elkartzen dituen. GAZTELAGUNA egitasmoan parte hartzen duten gazteak astean behin elkartzen dira, gutxienez, ordu betez, modu informal batean euskaraz aritzeko taberna batean edota kirola egiten duten bitartean.

Euskara praktikatzeko interesa duten gazteek www.gasteizkomintzalaguna.com webgunean topatuko dute izena emateko fitxa. Urteko kuota 15 eurokoa da. Euskaraz komunikatzeko gutxienezko maila izatea (B1.2 edo baliokidea) da bete beharreko baldintza bakarra.

Matrikula egiteko informazioa

Izena emateko epea: MARTXOAK 31, astelehena
Nola eman izena: www.gasteizkomintzalaguna.com
Matrikula kuota: 15 euro
'Bilatzen da' kanpainaren bideoa: [hemen](#)

* Info + elkarrizketak:

Zuriñe Etxeberria: zuriñe@gasteizkomintzalaguna.com / 648 907 565 / 945 222 153

Gasteizko Mintzalaguna busca jóvenes para hablar euskara

Nota de prensa 19-03-2014

Gasteizko Mintzalaguna esta buscando jóvenes motivados para hablar en euskara y, de esta manera, extender la red de GAZTELAGUNA en Vitoria - Gasteiz. En concreto, se buscan jóvenes de entre 18 y 28 años que residan o estudien en la capital alavesa. Según los últimos datos sociolingüísticos tres de cada cuatro jóvenes saben euskara, aun así, solo unos pocos se comunican en esta lengua en su día a día. Existen un sinfín de razones: vergüenza, miedo a meter la pata, falta de costumbre... No obstante, cada vez son más los y las jóvenes que forman parte de GAZTELAGUNA. El objetivo de esta nueva campaña es atraer a más jóvenes a este programa que se puso en marcha hace ahora tres años.



GAZTELAGUNA es una variante de *mintrapraktika* que reúne en pequeños grupos a jóvenes de entre 18 y 28 años. Se reúnen semanalmente durante una hora para hablar en euskara en un contexto informal. Normalmente, alrededor de una mesa en un bar o mientras practican algún deporte.

Quienes quieran practicar más euskara, y cada vez mejor, pueden inscribirse a través de la página www.gasteizkomintzalaguna.com. La cuota anual es de 15 euros. Una vez se hayan rellenado los datos, las técnicas de mintzalaguna se encargarán de crear los grupos. El único requisito para participar en GAZTELAGUNA es tener el nivel mínimo para comunicarse en euskara (B1.2 o similar).

Información para realizar la matrícula

Plazo de inscripción: Lunes, 31 de Marzo

Ficha de inscripción: www.gasteizkomintzalaguna.com

Cuota anual: 15 euro

Vídeo de la campaña 'Bilatzen da': [hemen](#)

* Para más información:

Zurine Etxeberria: zurine@gasteizkomintzalaguna.com / 648 907 565 / 945 222 153

GEU elkartea
Rogelia de Alvaro Elkarteen Etxea
(C eraikina, 1.1 bulegoa) Panama kalea z/g
01012. Gasteiz - 945222153

